

ONARTU TA AINTZATU!

Mariana edeslariak gure euskereari Bizkai'tarren izkuntza okerra esaten dautso, baiña munduko ia izkuntza guztien jakintzaille zan Humboldt jermanarrak euskereari buruz beste au esan eban: Izkuntza erritarra ta bizia, garbia ta gozoa, ago-ederra eta munduko izkuntza guztien artean bardin-bakoa zala.

1800n.urtean, Peru Abarka idaztiaren idazlea zan Mogel'ek España'ren kondaira ta lutelestia euskera izkuntza jakin ezkeru obeto argitzen eta irakasten dala agertu eban.

Gure Mogel'entzat eta bere aldiko beste askorentzat, euskerea izan zan gu bizi garan Erdi-Ugarte onetan aldi baten izan ziran biztanle guztien izkuntza eta lur-arlo onetan agertzen diran toki-izen askok dabe euskal-sustrai. Orrez gainera euskaldunak erlejiño-arazoetan benetako erlejiñoaren begirunea izan eben eta berrerosele dogun Jesus Salbatzaillea etorri baiño lenago ezagutzen eben benetako Jainkoa, sasi-jainkorik iñoz gurtu barik, eta orregaitik euren biotzak ondo gertauta egozan Barri Ona artzeko.

Traggia eritxon idazle batek urten eban Mogel'ek euskereari buruz agertu ebazan eritxi onein aurka. Erantzun oneik urte askotan irauan eben erdi-jakin barik eta euskaldun askorentzat jakin barik be igaro ziran.

Astarloa'tar Pedro Pablo Durangoarrak, 1752 urtean jaioa berau, iztegi bat argitaratu eban eta bere "Apolo-gia"ren itz-aurrean Traggia'k esandakoai erantzuna emoten dautse, orretarako eskaria Madrid'en bizi ziran euskaldunak egin ondoren. Euskaldun oneik Traggia'k esanakaitik oso asarre agertu jakozan Astarloa'ri eta erantzun bat idatzi egiala eskatu eutsoen. Ori izan zan berak Euskerearen "Apolojia" edo gorlpena idazteko zioa.

Liburu onetan Astarloa'k- Traggia'ren esaera zentzunbakoak ukatu eta ezabatu ebazan eta euskereak beste izkuntza guztien artean eukan edertasuna agertzen alegindu zan: "Izkuntza ezin-obeia, oso-osea, egitamu bardin-bakoa dauana, bere aozkatzean asierako munduaren margoa agertzen dauana, munduko lenengo izkuntza, jakintza aundia eukan erri batek erabilli bear eban izkuntza".

Astarloa'ren liburuak durundu aundia izan eban. Ara zer esan eban Godoy'k bere idazti baten: "Astarloa'tar Pablo Pedro'k, euskaldunen izkuntzari buruz aztertzaile ta jakin-zale dan saio bat argitaratu dau, lan sarigarria eta jakituri luze ta zabala agertzen dauana".

Liburuaren egillea zan Astarloa berak Jaunerriko Aldundira bialdu eban liburua eta Aldundiak 1803 urtean, dagonillaren 20'an egindako batzarrean, liburuaren ale batzuk eskatzea erabagi eban.

Olako gauzak entzunda, guk, geure izkuntza darabilgun euskaldunok, zelako ondorenak atera bear doguz? Eta zer egin bear dogu izkuntza au aldezteko, indartzeko, zabaltzeko?

Lenengo, eta batez be, gure izkuntza au pozik erabilli berbaz ekiten dogunean, eta ondo jantzita erabilten alegindu. Lotsatu egin bear gintzakez "une" esan bear dogunean "momentu" esaten dogulako, edo "oinkada"ren orde "pausu", edo "ederra"ren orde "elegantea", edo "errua"ren orde kulpia. Eta H izkia zer da gutzat? Erde-arearen zikinker bat, ez besterik. Gure euskera ederra gaxago biurtzen daskun ostopo bat. Ba-dira or euskaldun batzuk erderazko "comunidad" berbea esateko "amankomuna" erabilten dabenak be.

LETONA'k

IRAKURLE: 1. ZER'eri DAGOKION URTEKO SARIA ORDAINDU EZ BA'DOZU, BIALDU EGIZU "TXEKE" BAT "EUSKERAZALEAK ALKARTEA"REN IZENA EZARRITA COLON DE LARREATEGI 14, 2. ^ara. 1.200 PEZETA DIRA. ESKERRIK ASKO!

2. IDAZTEN BA-DAKIZU, IDATZI, LANAK URRI DATORKUZ-ETA. ESKERRAK BARRIRO.

ZUZENDARITZAK